

Columbreteseko otarrainak.

Columbretes uhartedia jatorri bolkanikoko zenbait uharte eta uhartexkek osatzen dute, Castelloko kostaldetik 30 itsas-miliatara.

Denbora luzez, arrantza librea izan zen, mediterraneoko otarrain arrantzagune emankorra bezala ezaguna zen inguru honetan. 1990. urtean, Itsas Erreserba izendatu eta bertan arrantzatzea mugatu egin zuten, esplotazio intentsiboak gutxitutako habitat baliotsu hau babesteko asmoz.

Urteak pasa eta esparru babestua zaindu eta kudeatu ahala, uhartedi hau Itsas Erreserba izendatzearen ondorioak islatzen dituen adibide argia bihurtu da. Espero zen bezala, ondorio horiek bertako espezie emblematikoenaren kasuan ere nabarmenak izan dira, otarrain gorriarenean kasuan, alegia.

Baina oskoldun dekapodo hau ez da itsas hondo hauetan bizi den bakarra. Abakandoa, ahaide hurbila, oro har urriagoa bada ere, Columbretes-etan maiz agertzen da. Reptantia azpi-ordenari dagozkion bi espezien artean begibistako ezberdintasunak daude; Abakandoa hagin indartsuez hornitua dator, otarrainen gorputz adarrak ahulagoak izan diren bitartean. Ohikoa ez izan arren, batzuetan elkarren ondoan ikus daitezke itsas-hondoan zehar ibiltzen.

Erreserba izendatzearen ondorioak erreserbaren barruan nahiz kanpoan aztertzen dira. Populazioaren garapena, erreserbaren perfil demografikoa, ale helduen mugimendua eta tarteko babes-eremuan barrutik kanporako larben sakabanatzea erregistratzen dira, baita errekluten dentsitatea eta erreserbatik kanpo egindako arrantzaren banaketa ere.

Datu horiek eskuratzeko, arrantza esperimentalak egiten da, nasak erabiliz. Jasotako aleen kopuruari, neurri eta pisuaren eta adin eta ugaltze gaitasunaren arteko erlazioari buruzko datuak jasotzen dira. Horretaz gain, populazioaren dinamikari dagozkion datu demografiko eta biologikoen bilketarako, aleak markatzen dira.

Zazpi urtez babestu ondoren, populazioa ondoko arrantzaguneetan baino bostetik hogeira aldiz handiagoa da. Horretaz gain, otarrain kopurua eta erreserbarekiko distantzia alderantzizko norabidean aldatzen dira. Tarteko eremuan, baimendua den tokietan, nabarmenki oparoa izaten da arrantza.

Oro har, populazioa egonkor mantentzen da, eta erregistratu diren gorabeherak ale ar handiei eta errekruta heldugabeei dagozkie, batik bat.

Arrautza eta larbak esportatzeko gaitasunari dagokionez, zera egiaztatu da: erreserban 6 bider handiagoa da arrantzagune esplotatuetan baino, eta 20 bider handiagoa, oso esplotatuetan baino.

Gauz abiatzen da otarraina jatera, bere dietaren oinarria moluskuak, beste oskoldun batzuk eta ekinodermatuak dira. Horrez gain, alga eta haratustel hondarrak jaten ditu.

Arrak emeak baino gorputz handiagoa dute, eta uste zena baino denbora luzeagoz bizi izaten dira: 20tik 25 urtera bizi daitezke. Gutxi mugitzen dira denbora tarte luze horretan, 2 edo 3 kilometro, baina ar handiak 4 edo 5 kilometrotara hel daitezke.

Ugalketaren zikloa motela da, 4 urte izan arte ez baitira heldutasunera iristen. 19 muda eta 2 metamorfosi dituen larba-zikloa konplexua da, eta 2 zentimetroko luzerara iristen denean, hondoan kokatzen da.

Erreserbak eskaintzen duen babesari esker, espezie hau errekuaratzen ari da gehiegizko arrantzatik. Otarrain hauek markatu egin dira, orain Columbretes-eko hondoetara itzultzeko, datozen urteetan ere espeziearen egoeraren berri emateko.